# KAIXO

URRETXUKO UDAL ALDIZKARIA

## *Urretxuko irudi berria*

## *Aurrekontuak 2008*

## *Elkarrizketa: Maite Berasategi*

Urretxu

96. ALEA
2008ko uztaila




Ale honetako laguntzaileak:
*JESUS MARI ALBERDI*
*FCO. JAVIER AGUADO*
*KOLDO ARGANDOÑA*
*GORKA AZKARATE*
*PEDRO BERRIOTXOA*
*IRENE CALVILLO*
*MIREN CASTILLO*
*JON CASTRILLO*
*ANA ISABEL ITURBE*
*IDOIA NARBAIZA*
*JABIER OTERMIN*
*MAITE QUEVEDO*
*KISKITZA UGARTEBURU*
*Mª CARMEN VIEDMA*

Azala:
*MATTIN OSINALDE*
Kaixoko argazkilaria:
*LUIS ANGEL TELLEZ*
Barruko argazkiak:

*KAIXOKO LAGUNTZAILEAK*

Lege Gordailua:
SS/678/93
Konposaketa:
ERROTAPRINT
Inprimaketa:
Iparragirre, S.A.
Kopurua:
3.300 Ale

KAIXOk ez du bere gain hartzen derrigorrez aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

*KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas*

Ez bazara Urretxun bizi eta **KAIXO aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu**, eman zure helbidea 943 03 80 88 telefonoan edota kultura.ur@urretxu.net helbide elektronikoan.

----

*Si no vives en Urretxu y* ***quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón*** *, déjanos tu dirección en el teléfono 943 03 80 88 o bien en kultura.ur@urretxu.net*

# AURKIBIDEA KAIXO

96. alea - 2008ko uztaila









3_PRESUPUESTOS 2008
8_UDAL BARRUKO EUSKARA PLANA
KONTSEILUAREN HIZKUNTZA NEURKETA_10
11_URRETXU ZENBAKITAN
12_NUEVA GESTORA PARA GESTIONAR EL CENTRO DE DÍA
"GAP" PROGRAMA_14
ELKARRIZKETA: MAITE BERASATEGI_16
20_MATTIN OSINALDE
22_TURISMO BULEGOA
LAS FIESTAS REPUBLICANAS_24
NUEVA PAGINA WEB_26
27_UDAL ZERBITZUAK: KIROL SAILA
28_TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIAK
KAIXO TXIKI UDALEKU MUSIKALAK_30

# PRESUPUESTOS 2008




***El gobierno municipal encabezado por el alcalde Iñaki Zabala presentó en mayo los presupuestos para el presente año 2008, y éstos no fueron aprobados por el pleno. Zabala sostiene que esta no aprobación de los presupuestos por parte de las restantes fuerzas políticas con representación en el consistorio es achacable, en gran medida, al "ambiente enrarecido creado en Euskal Herria por los últimos acontecimientos, que ha hecho cambiar de postura respecto al tema presupuestario a más de un partido, aun habiendo manifestado anteriormente su conformidad con los números presentados por nosotros".***

La no aprobación de los presupuestos prorroga automáticamente los presupuestos del año precedente, actualizando la cantidad de éste en base al IPC. Se da la paradoja de que los presupuestos prorrogados permiten gastar mucho más (casi un millón de euros) que los presupuestos propuestos por el equipo de gobierno, y Zabala no ve con buenos ojos que se presupueste gastar más de lo que se piensa ingresar. "La situación económica nos obliga a adoptar un comportamiento austero, ya que el Ayuntamiento va a ingresar este año menos dinero que en años anteriores". A continuación se presentan los presupuestos propuestos por el gobierno municipal para el presente año 2008:

## INGRESOS



| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Trasferencias habituales** | | **5.030.479** € | %61,3 | Casi en su totalidad proviene de lo concertado con la Diputación (IRPF, IAE, gasto social, deporte escolar,...). |
| **Impuestos** | **Directos** | **1.174.762** € | %14,3 | IBI, vehículos, impuesto incremento valor de terrenos, impuesto de actividades económicas. |
| | **Indirectos** | **129.832** € | %1,6 | Impuestos de construcciones, instalaciones y obras. |
| **Tasas y otros ingresos** | | **1.036.818** € | %12,6 | Agua, basura, alcantarillado, cementerio, centro de día, polideportivo, piscina, Ayuntamiento de Zumarraga, ocupación de suelo, licencias urbanísticas,... |
| **Trasferencias de capital** | | **515.035** € | %6,3 | EG, Diputación, Ayuntamiento de Zumarraga, canon de infraestructuras,... |
| **Otros** | **ingresos provenientes del patrimonio** | **58.388** € | %0,7 | Alquileres, intereses y derivados de concesiones administrativas. |
| | **Enajenación inversiones reales** | **250.000** € | %3 | Subvenciones, canon de infraestructuras y otras administraciones públicas. |

| TRANSFERENCIAS HABITUALES | |
|---|---|
| DFG: Tributos concertados | 4.359.001 € |
| DFG: Social, deportivo, deporte escolar, cultura | 565.214 € |
| Gobierno Vasco (biblioteca, área social, juzgado) | 90.821 € |
| Otras administraciones | 15.443 € |

| IMPUESTOS DIRECTOS | |
|---|---|
| IBI urbana | 700.911 € |
| Impuesto vehículos tracción | 412.845 € |
| Impuesto actividades económicas | 30.214 € |
| Impuesto incremento valor terrenos | 25.759 € |
| IBI rústica | 5.034 € |




| TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | |
|---|---|
| Subvención Gobierno Vasco | 292.200 € |
| Canon infraestructuras | 122.335 € |
| Otras administraciones públicas | 57.000 € |
| Subvención diputación | 43.500 € |

| INGRESOS PROVENIENTES DEL PATRIMONIO | |
|---|---|
| Concesiones administrativas | 34.803 € |
| Intereses | 12.000 € |
| Alquiler local Euskaltel | 6.120 € |
| Alquiler bares polideportivo y frontón | 5.100 € |
| Otros | 365 € |

# GASTOS




| | | | |
|---|---|---|---|
| **Administración** | **1.611.418** € | %19,6 | Órganos de gobierno, administración general, administración financiera. |
| **Otros servicios** | **1.495.132** € | %18,2 | Alumbrado público, jardinería, red de saneamiento y abastecimiento de agua, limpieza, cementerio, desarrollo sostenible, hogar del jubilado, área rural. |
| **Acción social y salud** | **1.327.725** € | %16,2 | Acción social, asistencia a domicilio, emergencia social, centro de día, fomento del empleo, acciones de salud. |
| **Urbanismo, obras y servicios** | **1.317.109** € | %16 | Urbanismo, obras y servicios. |
| **Cultura** | **974.622** € | %11,9 | Fomento de la cultura, casa de cultura, biblioteca, euskara, juventud, festejos. |
| **Deportes** | **570.460** € | %7 | Deporte, jornada integradora de deporte, polideportivo, piscina, frontón. |
| **Seguridad y Policía Municipal** | **456.852** € | %5,6 | Seguridad civil y seguridad ciudadana |
| **Educación** | **441.993** € | %5,4 | Educación |

| PRESUPUESTO DE GASTOS | |
|---|---|
| Adquisición bienes habituales y servicios | 3.805.314 € |
| Personal | 1.805.051 € |
| Transferencias habituales | 1.328.922 € |
| Inversiones reales | 1.115.010 € |
| Otros | 141.017 € |

| ADQUISICIÓN DE BIENES HABITUALES Y SERVICIOS | |
|---|---|
| Material, suministro y otros | 3.404.378 € |
| Arreglos, mantenimiento y conservación | 370.202 € |
| Otros | 30.734 € |

| PERSONAL | |
|---|---|
| Personal laboral | 733.474 € |
| Funcionarios y estatutarios | 540.836 € |
| Cuotas, prestaciones y gasto social | 469.205 € |
| Altos cargos | 61.537 € |

## INVERSIONES

En este momento se están llevando a cabo varias obras. Destaca la obra de mejora de la calle Iparragirre. Tras implantar una única dirección de paso al tráfico rodado, el objetivo es calmar el paso de vehículos, disminuyendo la anchura del vial y priorizando el devenir de los peatones por medio de una acera en condiciones. También se están reparando las aceras de Barrenkale.

En cuanto a Santa Bárbara y su entorno, teniendo en cuenta que es un punto de encuentro importante y un lugar especialmente querido por todos los urretxuarras, se pretende concebir su forma de cara a los próximos 20-30 años y remodelarlo en consecuencia.

Por otro lado, al haberse incrementado el uso de la carretera de acceso del grupo Santa Bárbara a las nuevas urbanizaciones de la zona del barrio Mundo Mejor por parte de peatones (hay que tener en cuenta que la rampa que parte de la calle Labeaga es bastante inclinada), la intención es delimitar la zona peatonal mediante una acera, ya que actualmente caminar por el borde de esta carretera resulta bastante peligroso.

| TEMA | CANTIDAD |
|---|---|
| **Mobiliario y material de oficina** | 12.000 € |
| **Local Jauregi 14** | 18.000 € |
| **Centro de día** | 38.210 € |
| **Compra de terrenos** | 370.000 € |
| **Rehabilitación de locales** | 60.000 € |
| **Santa Barbara** | 10.000 € |
| **Ejecución plan tráfico** | 100.000 € |
| **Bidegorris** | 10.000 € |
| **Área rural** | 25.000 € |
| **Licencia trans, equipos,...** | 18.000 € |
| **Merkagune** | 9.000 € |
| **Planta baja Ayuntamiento** | 30.000 € |
| **Plaza Pagoeta** | 40.000 € |

| TEMA | CANTIDAD |
|---|---|
| **Mugitegi Murua** | 42.000 € |
| **Cartografía y demás** | 18.000 € |
| **Eliminación barreras arquitectónicas** | 6.000 € |
| **Polideportivo** | 29.200 € |
| **Gainzuri (anclaje de muro y demás)** | 150.000 € |
| **Equipamiento cultural** | 6.000 € |
| **Proyectos** | 54.000 € |
| **Escalera de Mugitegi** | 30.000 € |
| **Servicio WIFI** | 18.000 € |
| **Plaza Areizaga** | 11.600 € |
| **Ikastola** | 10.000 € |

## RESUMEN




En cuanto a los gastos corrientes, los presupuestos reflejan un incremento de aproximadamente el 23% respecto al año anterior. Esto se debe al incremento de personal tras las nuevas contrataciones llevadas a cabo y a estudios varios.

Hay que tener en cuenta que éste es en cierta medida un año de definición, de planificación de lo que se va a ejecutar los próximos años. Esto queda claramente reflejado en ciertas partidas: en el proceso de definición de las normas subsidiarias, por ejemplo, hay gastos que una vez que se definan y aprueben estas normas desaparecerán y darán paso a otra serie de gastos, que serán los gastos derivados de la ejecución de lo recogido por el propio paquete de normas subsidiarias.

# COMPARATIVA

## GASTO FIJO

**PERSONAL**




**MANCOMUNAZGOS**




**CORPORACION**




**GASTOS CORRIENTES**




**GASTO FIJO**




**COMISIONES**




**INVERSIONES**




## GASTOS EN COMPARACION CON 2007




↑ %1,8

↓ %10

## AURREKONTUAK 2008

Iragan maiatzean, 2008 urterako Urretxuko Udaleko aurrekontuak aurkeztu zituen udal gobernuak. Udal batzarrak ez zituen aurrekontu hauek onartu. Iñaki Zabala alkatearen esanetan, "azken hilabeteotan Euskal Herrian izandako gertakariek giroa dexente nahastu dute eta horrek jarrera aldaketak eragin ditu zenbait alderdirengan, aurretik guk aurkezturiko aurrekontuekiko adostasuna agertu izanagatik. Aurrekontuak ez onartzeak, aurreko urtekoen eguneraketa eta luzapena dakar, eta honek egoera xelebre batera darama Udala, udal gobernuak proposaturiko aurrekontuetan baino ia milioi bat euro gastatzeko aukera izatera, alegia. Hau, ordea, ez du Zabala alkateak begi onez ikusten, aurten ez baitu Udalak aurreko urteetan bezainbesteko diru-sarrerarik izango. "Zuhurrak izatera behartzen gaitu egoera ekonomikoak". Artikulu honek, udal gobernuak aurkezturiko aurrekontuak jasotzen ditu, alor bakoitza xehetuz.

## CONCLUSION

En general, el desglose de los presupuestos, a excepción de la partida de inversiones, es en gran medida similar año tras año, no dejando un excesivo margen de maniobrabilidad, si bien Zabala afirma que "en nuestro caso, en aras de desarrollar una política de izquierdas, hemos aumentado en varios puntos ciertas partidas (área social, juventud, euskara…) en detrimento de otras, pero no hay posibilidad de hacer grandes cambios. En cualquier caso, la situación económica nos obliga a planificar las inversiones de manera contenida". >

***Gorka Azkarate***

# UDAL BARRUKO EUSKARA PLANA

***Urretxuko Udaleko Euskara Batzordeak proposatuta, joan zen martxoaren erdi aldera udal barruko euskara planari bultzada eta jarraipena emateko urratsak bideratzen hasi zen Udal hau.***



Proposamen honen helburu zehatzek helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:

1. Herritarrekiko harrema - netan euskara zerbitzu-hizkuntza izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuz.

2. Euskara beste erakunde batzuekiko harremane tako hizkuntza izan dadin bermatzea.

3. Hala dagokionean, euskara barruko lan-hizkuntza izan dadin bermatzea.

Jarduera esparruak eta normalizazio ekintzak

Honako jarduera esparruak eta normalizazio ekintzak hartuko ditu kontuan Udalak euskararen erabilerari dagokionez:

> ***“Urretxuko udalean euskararen erabilera, ahozkoa eta idatzizkoa, indartzea eta areagotzea da euskara planaren helburu nagusia, bai zerbitzu-hizkuntza, bai lan-hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza - eskubideei erantzun ahal izateko.”***

***1) Langileen hizkuntza gaitasuna eta prestakuntza***

URRETXUKO UDALEKO langile bakoitza, normaltasun osoz, bere eguneroko zereginak euskaraz egiteko gai izango da. Aldiro-aldiro langileei eskainiko zaizkien trebakuntza saioekin osatuko da gaitasun maila hori.

***2) Kanpo harremanak***

Kanpora begira, helburu nagusia, harreman hizkuntza, ahoz zein idatziz, euskara izatea da, beti ere kontuan izanda herritarrak hizkuntza aukeratzeko eskubidea daukala. Idatzizko harremanei dagokienez, euskararen erabilera areagotzeaz

gain, idatzien kalitatea bermatzea izango da helburua.

***3) Barne harremanak***

Barruko harremanei begira, ahoz nahiz idatziz, euskarazko harremana lortzea litzateke helburua; hau da, lan-hizkuntza euskara izatea pixkanaka-pixkanaka.

***4) Hizkuntza paisajea***

Hizkuntza paisajea, erakundearen irudia osatzen duten elementuek, balio sinboliko nahiz informatiboa dutenek, gorpuzten dute.

Helburua URRETXUKO UDALAREN irudian, oro har, euskararen presentzia bermatzea da. Euskarak izango du beti lehentasuna.

***5) Baliabide informatikoak***

Gero eta garrantzia handiagoa hartuko duen alorra dugu, erakundeko funtzionamenduan gero eta informatika baliabide gehiago erabiliko direlako datozen urteotan. Horrela bada, informatikaren eta teknologia berrien munduan ere, arian-arian, hizkuntza normalkuntzari ekingo zaio.

Helburua, baliabide informatikoak euskaraz jartzea eta erabiltzea da.

## *Kronograma proposamena*

Goian aipatutako ekintza horiek gauzatzeko, eta duela urte batzuk Urretxu-ko Udalbatzak onartu zuen euskara planari jarraipena eman ahal izateko, kronograma proposamen bat prestatu du Euskara Batzordeak; bertan hiru ekintza nagusi aurreikusten dira:

a) **Hizkuntza irizpide orokorren zehatapena**: apirilaren hasieratik maiatzaren amaierara bitartean egin zena.

b) **Hizkuntza-irizpi de partikularrak zehaztea, batzordeka eta zerbitzuka**: ekainaren 1etik uztailaren 30era bitarteko aldia aurre ikusi da bigarren ekintza hori garatzeko. Atal honetan, gainera, lehentasuna hiru zerbitzuri ematea proposatu da: kulturari, kirolari eta udaltzaingoari.

c) **Premiazko baliabideak martxan jartzea:** irailetik aurrera gauzatu beharreko ekintza multzoa; atal honetan, besteak beste, udal-langileei zuzendutako trebakuntza saio laburrak aurreikusi dira.>

***Jexus Mari Alberdi***

**“Urte honen bukaerara bitartean gauzatu beharreko ekintza sorta bat proposatu du Euskara Batzordeak; besteak beste, kulturan, kirolean eta udaltzaingoan hizkuntza irizpideak finkatzea, eta irizpide horiek betetzeko behar diren baliabideak martxan jartzea.”**



### EUSKERA EN EL AYUNTAMIENTO

A propuesta de la Comisión de Euskera, el Ayuntamiento de Urretxu ha comenzado a dar los pasos para realizar el seguimiento del plan de uso del euskera dentro del propio ayuntamiento.

El objetivo principal de esta propuesta es fortalecer y aumentar el uso del euskara escrito y hablado en el Ayuntamiento de URRETXU, como lengua de servicio y como lengua de trabajo, garantizar el uso del euskara y así respetar los derechos lingüísticos de los administrados.

Para ello está previsto llevar a cabo una serie de actuaciones de normalización en unos ámbitos concretos, como son: capacitación y formación lingüística de los empleados, relaciones externas, relaciones internas, paisaje lingüístico y recursos informáticos.

Al mismo tiempo, la Comisión de Euskera ha realizado el cronograma para la materialización de dichas actuaciones. De esta forma, para finales de mayo se concretaron los criterios lingüísticos generales; para últimos de julio se realizará la concreción de criterios lingüísticos en las áreas de cultura, deporte y policía municipal, y a partir del mes de septiembre quedarán establecidos los medios necesarios para afrontar las necesidades que pudieran surgir en el cumplimiento de los criterios establecidos.

# UDALAREN HIZKUNTZA POLITIKAREN NEURKETA KONTSEILUAREN ESKUTIK

*El pasado día 16 de junio, el Pleno de la Corporación aprobó el convenio a firmar con Kontseilua, sobre políticas lingüísticas adecuadas en los ayuntamientos.*




Joan zen ekainaren 16an Udalbatzak egindako osoko bilkuran, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak Urretxuko Udalari elkarlanerako egin zion hitzarmen proposamenari eman zion onespena.

Kontseiluaren lan-ildoetako bat udalen hizkuntza-politikaren azterketa da. Ildo horretan lanean aritu da azken urteo- tan eta hainbat ekarpen egin ditu; besteak beste, udalen hizkuntza-politika neurgailu bat sortu eta Euskal Herri osoko 66 herritako hizkuntza-politika neurtu du.

Neurgailua elementu objektiboetan oinarritzen da. Ebaluazioa neur-tzeko tresna izateaz gain, hizkuntza-politikak hobetzeko tresna bat ere bada, hizkuntza-politikaren adierazleak diren oinarrizko elementuak identifikatzen dituelako. Bestalde, neurketa honek aukera ematen du udal baten emaitzak neurtutako gainontzeko udalekin alderatzeko.

Bide horretan sakontzeko, oraingoan Kontseiluak udalen hizkuntza-politikaren neurketa herri gehiagoetara zabaltzeari ekin dio, ekimena Euskal Herriko ahalik eta herri gehienetan ebaluazio hau ahalik eta gehien hedatzeko.

Hori guztia horrela, eta Urretxuko Udalak Kontseiluarekin hitzartu duenaren arabera, Udalak bere hizkun-tza-politikaren ebaluazioa babesten du, eta beharrezko laguntza teknikoa eskaintzeko borondatea adierazi du. Era berean, ebaluazioa oinarritzat harturik, administrazio honen hizkuntza-politikan egon daitezkeen gabeziak konponbidean jartzeko konpromisoa hartzen du Urretxuko Udalak.

Aipatutako guztiaren harira, herriko euskalgintzako eragileek eta udaleko euskara zerbitzuak hainbat galdetegi bete dute dagoeneko, eta irailerako prest izango ditugu 1. neurketari dagozkion emaitzak. Horren ondoren, udalaren hizkuntza-politikan ematen diren aldaketen jarraipena egingo litzateke, eta azkenik, 2. neurketa egingo da, izandako eboluzioa aztertzeko.>

***Jexus Mari Alberdi***



# URRETXU ZENBAKITAN

**Horrela du izena hilaren 3an, Urretxuko Kultur Etxean, Udaleko arduradunek aurkeztu zuten liburuxkak. Bertan, gure herriari buruzko arlo ezberdinetako datu interesagarriak bildu dituzte.**

Esan bezala, uztailaren 3an, aurkeztu zuten *Urretxu zenbakitan* izeneko liburuxka. Liburuaren asmoa da gure herria hobeto ezagutzeko tresna egokia eta baliagarria izatea. Datu estatistikoz osatuta dago liburua, era erraz eta ulergarrian emanak, begi-kolpe batean ikusteko moduan, grafiko ugariz osatuta baitago. Hau da, modu erakargarrian jarri dituzte. Hainbat atal ezberdin lantzen ditu; hala nola, biztanleak lurraldean; jaiotzak eta heriotzak; adin eta sexu osaketa; sektore ekonomikoak; etxebizitza; euskara eta hezkuntza. Gure herriko datuez gain, Goierrikoak, Gipuzkoakoak, Euskal Herrikoak, Europako Batasunekoak eta Mundukoak dira, horrela ikuspegi zabalagoa izateko aukera eskaintzen digu.

**“Uztailaren 3an aurkeztu zuten Aztikerrek egindako “Urretxu zenbakitan” liburuxka”**

Lana Aztiker ikerketa soziologikoan espezializatutako enpresak burutu du. Horrelako lanak egiteko datu-iturri ofizialetan oinarritzen dira eta lanerako zein kontsultarako, tresnak bilakatzen dituzte. Taula eta grafiko bakoitzaren azpian zehaztu dituzte erabilitako iturriak.

Bertan agertzen diren datuen adibide txiki bat honako hau da: Urretxuko biztanleria dentsitatea Goierrikoa, Gipuzkoako, Euskal Herrikoa eta Europako Batasunekoa baino askoz handiagoa da. Beste atal batetan agertzen da nola 1900. urtetik 6 aldiz halakotu den Urretxuko biztanle kopurua, Gipuzkoan eta Euskal Herrian handitu dena baino dezente gehiago.

Aurrera jarraituz honako datu hau ere jakin dezakegu: gizonezkoen artean hamar landunetatik zazpik industrian lan egiten dute; aldiz, hamar emakumezkoetatik ia zortzi zerbitzuetan ari dira, 2001. urteko datuen arabera. Horrelako zehaztasunak aurkituko ditu irakurleak argitalpen honetan.

**“Argitalpen horretan gure herriko datuez gain, Goierrikoak, Gipuzkoakoak, Euskal Herrikoak, Europako Batasunekoak eta Mundukoak ematen dira”**

Liburuxka eskuratu nahi duenak Urretxuko Kultur Etxean edo Udaleko Harreran eskuratu ahal izango du. Teknologia berriak gustuko dituenak www.urretxu.net orri nagusian du Urretxu zenbakitan libururako esteka, eta bertan ditu eskuragarri datu horiek eta informazio osagarria ere.>

**Idoia Narbaiza**

## URRETXU EN CIFRAS

El pasado día 3 de julio responsables del Ayuntamiento de Urretxu presentaron en la Casa de Cultura la publicación *Urretxu en cifras*. Es un libro realizado por la empresa Aztiker que recoge información sobre la población y territorio; nacimientos y defunciones; estructura de sexo y edad; sectores económicos; vivienda; euskera y educación. Ofrece los datos de un modo muy visual y fácil de entender, puesto que presenta la información mediante gráficos. Compara los datos estadísticos con los de Goierri, Gipuzkoa, Euskal Herria, la Unión Europea y el Mundo, lo cual nos da una idea muy exacta de la situación de nuestro pueblo. Quien quiera hacerse con un ejemplar de la publicación puede acudir a la Casa de Cultura o al Servicio de Atención al Público del Ayuntamiento. También podemos encontrar la información en la página web www.urretxu.net, dónde tenemos el enlace al contenido del mencionado libro y más información complementaria.

# NUEVA GESTORA PARA EL CENTRO DE DIA

**Duela gutxi Urretxuko Udalak akordio berri bat sinatu du hemendik aurrera Eguneko Zentroaren kudeaketaz arduratuko den AKERU enpresarekin. Aurrekoak bakarrik pertsonala kudeatzen bazuen ere, oraingoak, berriz, kudeaketa integrala egingo du; pertsonala, materiala, administrazioa, mantenua, jatorduak, e.a. bere gain hartuz. Udaletxeak, urretxuarren mesederako izatea espero du.**

Desde el pasado día 1 de julio, una nueva empresa se hace cargo de la gestión del Centro de día y de la asistencia domiciliaria que se solicite desde la Concejalía de Bienestar social a través de los Servicios sociales del ayuntamiento.

En estos momentos son 32 los usuarios del Centro de día, de los cuales 30 son dependientes y 2 son autónomos. Durante su estancia en el Centro son varios los servicios que se les ofrecen: transporte, comida, cena, limpieza corporal, tratamiento de la incontinencia, ejercicios para facilitar la

> “Gaur egun 32 erabiltzaile dira Zentrura doazenak, horietatik 30 menpekoak eta 2 autonomoak”



movilidad, otros de psicoestimulación, terapia ocupacional, de fortalecimiento mental, de orientación respecto de la realidad, etc. También se cuidan los aspectos médicos básicos que incluyen desde el control de la tensión a la administración de vacunas y/o medicamentos según prescripción médica.

*"Elikatzeaz gain, garbitasunez, mugikortasunez, sikoestimulazioaz, terapia okupazionalaz, buruaren entrenamenduaz eta oinarrizko osasun mediku-beharretaz zainduak daude."*



En cuanto a la ayuda domiciliaria que ofrecen los Servicios sociales desde el ayuntamiento, son 64 personas las que reciben dicha ayuda, de las cuales 29 son autónomas y 35 dependientes. Con estas personas se procura compensar su pérdida de autonomía con una ayuda dirigida a realizar las labores diarias que el mantenimiento de un hogar supone. Así, se ayuda a hacer la comida, la limpieza general, a hacer la cama, la limpieza y planchado de la ropa, ayuda para levantarse o acostarse en la cama, a vestirse o desnudarse, al diario higiene personal, al control sobre la administración adecuada en cantidad y temporalidad de las medicinas prescritas por el médico, etc…

*"Udaletxeko Gizarte Zerbitzutik bideratuta, gaur egun, 29 autonomo eta 35 menpeko dira etxez- etxeko laguntza jasotzen dutenak, dituzten etxeko nahiz pertsonal beharrei erantzunez."*

La nueva adjudicación de la gestión de los mencionados servicios trae consigo importantes mejoras. Para empezar hay que indicar que la empresa anterior sólo gestionaba el personal, sin embargo Akeru, la nueva empresa hará una gestión integral de todo el servicio excepto el transporte, cogiendo, por tanto, a su cargo no sólo el personal, sino también el material, la administración, el servicio de comidas y cenas, el mantenimiento de las instalaciones, etc.

*"Enpresa berriarekin ere, orain arteko langileriak izandako lan bera egiten jarraituko du. Pertsona berri bat kontratatuko da, esleitutako bi gizarte zerbitzu horien planifikazio, koordinazio eta antolamendua egin ditzan."*

Respecto al personal se mantiene la plantilla existente, en cuanto a trabajadores, ayudantes de geriatría, terapeuta y cocinero. Además se va a contratar una nueva persona para encargarse de la coordinación, planificación y organización de ambos servicios.
Así mismo, está prevista una serie de inversiones con el objetivo de ahondar en la mejora de la prestación del servicio. Aprovechando el período estival se va a proceder, por ejemplo, al pintado del Centro, al arreglo de ventanas y sustitución de puertas actuales por otras más anchas, a la instalación de nuevos electrodomésticos como lavadora, secadora y lavavajillas industriales y también, a la instalación de calefacción tanto en el Centro de día como en el Aterpe.

*"Udaldian, berogailuak, leihoak, ateak eta elektrogailu industrialak berritzeko eta Zentroa margotzeko aprobetxatuko da."*

Desde el ayuntamiento se desea que la adjudicación de esta nueva gestión a una empresa avalada por su amplia experiencia en este campo asistencial, sirva de garantía para ofrecer un mejor servicio a todos los urretxuarras. >

***Jon Castrillo***

# NAZIO BATUETAKO "G.A.P." PROGRAMA

***Ingurumena zaindu eta, gainera, etxetik irten gabe dirua aurreztu nahi? GAP (Global action plan) Programak, lau hilabetetan zehar, eguneroko bizitzan aldaketa txiki batzuk egitera baino ez du eskatzen eta betez gero Ingurumenaren hobekuntza lortzeaz gain beste zenbait opari eta sari eskuratu ahal izango dira.***

Ba al zenekien etxeko bonbilla arrunt bakar bat kontsumo gutxiko beste batekin ordezkatuz gero 42.000 tona CO2 gutxiago zeruratuko genuela eta Euskadi mailan 7 milioi euro aurreztuko liratekeela?




Azken bolada honetan, krisia hitza nonahi entzun daiteke eta badirudi, mundua larritzen hasi dela; eta agian abisu horri erantzunez hitzetatik ekintzetara pasatzeko ordua iritsi da eta ondorioz gure egunerokotasunean ingurumenarekiko sortzen dugun eragin kaltegarria gutxitzen saiatu, etxean bertan jarrai ditzakegun jokabide baikor zehatzak eginez.

Nazio Batuek sortutako GAP programa eguneroko ohituretan finkatzen da eta lan egiteko tresna moduan, 5 gai nagusiren inguruan ekintza erraz batzuk proposatuz, hitz egiten duten eskuliburuak erabiltzen ditu: ur kontsumoa, energia kontsumoa, garraioen erabilpena, etxeko hondakinen kudeaketa eta erosketa ohiturak.

Parte hartzeko hitza ematen duten familiek, hasteko, galdeketa xume bat bete beharko dute; ondoren, liburuxkek proposatzen dituzten aholkuak jarraitzen saiatu, hileroko zazpi ekintzak betez. Bukatzean, galdeketa orriak berriro beteko dituzte, eta aurrekoarekin alderatuz aipatutako gaietan egin den aurrezkia zenbateraino izan den kalkulatzeko.

Proposatutako ekintzak zuzen jarraituz gero etxe bakoitzean hauxe lor daiteke:

- Etxeko hondakinak %10 gutxitu eta hauen bilketa bereiztua handitu.
- Uraren kontsumoa %15 gutxitu.
- Energiaren kontsumoa %15 gutxitu.
- CO2ren produkzioa %10 gutxitu
- Dirutan, urteko 90 euro aurreztu daiteke.

Estatu Batuetan duela 20 urte jaiotako programa honek ordutik izandako garapenari esker, beste 15 herrialde inguru bereganatzea lortu du. Europan bertan; besteak beste, Bretainia Handia, Suezia, Polonia eta, orain ere, Euskadi aipa daitezke.

Urrextuari dagokionez, Ikastetxeetan eta komunikabide ezberdinetan udaletxeko Garapen Iraunkorra Batzordetik bultzatutako ekintza honen berri zabal-zabal eman da eta, dagoeneko, 20 familia inguru dira parte hartzeko prest azaldu direnak.

Nahi izanez gero, garaiz zabiltza oraindik eta udaletxetik pasatuz, izena ematea besterik ez duzu egin beharko. Horrela argi eta garbi utziko zenuke Ingurumenaren osasunak kezkatzen zaituela eta prest zaudela bere alde jokatzeko, benetako iraunkortasuna lortzen saiatuz eta zure asmo onak ekintzetan gauzatuz. Anima zaitez!.

# URRETXUN



***¿Quieres cuidar el medio ambiente y además ahorrar dinero en tu hogar? Comprometerse durante cuatro meses a realizar pequeños cambios en nuestra actividad cotidiana, contribuirá a mejorar la salud ambiental de nuestro entorno y será recompensado con regalos y premios.***

Sabías que, cambiando una, sólo una simple bombilla convencional por otra de bajo consumo, emitiríamos al año 42.000 toneladas menos de CO2 y además, Euskadi ahorraría 7 millones de euros al año?

En estos tiempos de crisis global parece ser un buen momento para pasar de las palabras a la acción y comprometernos de manera personal a reducir el impacto que diariamente generamos sobre el medio ambiente a la vez que mejoramos nuestra calidad de vida, a través de un conjunto de acciones que se pueden realizar desde el propio hogar.

El programa GAP (Global Action plan) creado por Naciones Unidas para impulsar un desarrollo sostenible se centra directamente en nuestra actividad cotidiana y basa su estrategia en la realización de un conjunto de acciones encuadradas en cinco aspectos concretos: consumo de agua, consumo de energía, uso del transporte, gestión de residuos domésticos y hábitos de compra. De todo ello se informa en unos manuales prácticos donde se ofrecen unas sencillas pautas de actuación.

Las familias que se comprometan a llevar a cabo este programa tendrán que rellenar primeramente unos sencillos cuestionarios y después tratar de poner en práctica los consejos que se les han indicado en los manuales. Deberán así, poner en práctica siete acciones concretas en cada mes. Al terminar el programa deberán rellenar de nuevo los cuestionarios iniciales y tras compararlos con los primeros se calculará el ahorro conseguido.

Si cumplen las acciones propuestas las familias pueden conseguir:

- Reducir en un 10 % la producción de residuos domésticos e incrementar la recogida selectiva.
- Reducir un 15 % su consumo habitual de agua.
- Reducir un 15 % el consumo de energía.
- Evitar en un 10 % la producción de CO2.

Se trata de una experiencia que comenzó en Estados Unidos hace casi 20 años y durante este tiempo más de quince países se han incorporado ya al programa. En Europa, Gran Bretaña, Suecia, Polonia y ahora también Euskadi, entre otros participan activamente en esta propuesta de acción global.

En Urretxu, se ha informado sobre este programa tanto en los Centros escolares como a través de los distintos medios de comunicación y son ya una veintena las familias que se han comprometido a llevar adelante este programa impulsado desde la Comisión municipal de Desarrollo Sostenible. Todos aquellos que lo deseen todavía están a tiempo de participar, sólo tienen que acercarse al ayuntamiento y dar su nombre. Es la forma más tangible de demostrar que nos preocupa el medio ambiente y que aportamos nuestro granito de arena para lograr una verdadera sostenibilidad en nuestro entorno. Vamos, anímate! >



***Jon Castrillo***



**NORTASUN AGIRIA**

*Izen-abizenak:*
***Maite Berasategi Zabalo***

*Adina:*
***50 urte***

***Eiluz elkarteko kidea eta Geltokietako jaietako batzordeko kidea***

# MAITE BERASATEGI

## *"Gogor saiatuz gero, nahi den guztia lor daiteke bizitza honetan"*

***Etengabe oztopoak gainditzen ibili beharra eguneroko ogia da aspalditik Maite Berasategirentzat. Une latzak igaro dituen arren, une latz horiek bizitzari aurpegira begiratzen ikasteko baliagarri izan zaizkiola hauteman daiteke berarekin hiruzpalau hitz trukatu orduko. Urtetan EILUZ elkarteko kide nekaezina, Geltokietako jaietako batzordean buru-belarri murgildurik dabil azken urteotan. Izan ere, ez da Maite geldi egotekoa.***

***Ia 30 urte daramazu gure artean, baina jaiotzez zegamarra zara.***

Bai, hala da. Otzaurteko bentatik gertu dagoen Etxezurieta baserrikoa naiz jaiotzez, Aizkorrikumea, hortaz. Donostiara joan nintzen 10 urterekin barnetegi batera, barne-ikasle moduan, eta 13 urterekin Altsasura. 15 urte nituela nire bizitza kolpetik aldatu zuen istripua izan nuen Altsasuko geltokian: trenak harrapatu ninduen.

***Istripuaren ostekoa, ez zen garai samurra izango...***

Erietxe ugari bisitatu behar izan nituen, erabat osatu arte. Gasteiz, Iruñea, Donostia eta Madrilen izan nintzen. Bizpahiru urteren buruan, ikasketak jarraitzeko moduan nengoen berriro, gurpildun aulkian, hori bai. 79an etorri nintzen hona, Zumarragara lehenik eta Urretxura ondoren.

***Egoera latzari buelta emateko gai izan zinen.***

Istripua izan eta berehala jabetu nintzen ordura artekoa amaitu zela eta bizitza berri bati ekin behar niola, aurrekoarekin inolako zerikusirik ez zuen bizitza zeharo ezberdin bati. Fisikoki une gogorrak igaro nituen, baina min fisikoa arintzeko bideak bazeuden. Min psikologikoa, ordea, menperatzen zailagoa da eta adore handia behar da horretarako. Epe batzuk pasa behar dira, fase batzuk, norberaren arabera motzagoak edo luzeagoak izango direnak, baina azkenean, gaindigarria da. Ez dago atzera bueltarik eta datorrenari aurre egiten jakin behar da. Kontuan hartu behar da herri txiki batekoa nintzela (Zegama) eta nekazal giro hura ez zela elbarritasunari aurre egiteko aproposena. Gurasoak, esaterako, erabat itsutu zituen niganako maitasunak, eta pena baizik ez zuten sentitzen uneoro. Horrelako egoera batean, zabor ugari pilatzen da elkarrekiko harremanean eta zabor hori astindu beharra dago. Haseratik gauza guztiak argi utziz, guztia da eramangarriago. Egia da, baita ere, nire kasuan zortea lagun izan nuela eta bizitza arriskuan izatearen mugara heldu izanagatik, zauriek hobera egin zutela. Beti esan izan dut bizitzan zorte handia izan dudala, nahiz eta bizitzak kolpe latzak eman dizkidan. Familiak eta lagunek ere izugarri lagundu didate, helduleku ikaragarria izan dira niretzat.

***Zaila da 15 urteko gazte batek elbarritasuna gainera etorritakoan zer sentitzen duen irudikatzea...***

Tokatu ez zaion batek egoera honetan bizitzea zer den imajinatzea zaila da. Ondo pentsatuta, ez dago benetan imajinatu ere egiterik, eta hala hobe! Bizitzan beste mila arazo daude, egoera honetan bizitzea zer den imajinatzen hasteko ere. Erotu egingo ginateke! Buruko minik izan gabe aspirinak hartzea bezalakoa da, zergatik eta ondokoak buruko mina daukalako. Ez du zentzurik.

***EILUZ taldeko kidea zara aspaldi - tik. Zer da EILUZ?***

Eiluz Ezkio, Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga hitzen lehen hizkia hartu eta hizki horiek elkartuz sortzen den akronimoa da. Berez, elbarritasun fisikoa dutenen Urola Garaiko taldea gara. Orain 20 urte inguru sortu genuen taldea. Hasera batean, Gipuzkoako elkartearen delegazioa ginen, baina gerora elkarte bezala egituratu ginen eta gaur egun hala gaude.

***EILUZ taldean, kideen arteko elkartasuna izango da nagusi.***

Eremu oso industrialean bizi garela jakinik, elbarritasunak, mota askotarikoak, ugari direla kontuan hartzea ezinbestekoa da. Horrela, 800 lagun inguru egongo gara herri hauetan elbarritasunen bat gainean daukagula. Lanerako, ordea, dozena erdi bat lagun baino ez. Elkartasunari dagokionez, nor sentitzen den elbarri eta nor ez, hori da kontua. Askok aparkaleku txartela lortzeko edo desgrabazio fiskalez baliatzeko daukate elbarri txartela, baina hortik talde bateko kide diren kontzientzia barneratzera, tarte handia dago. Semealabaren bat elbarria daukaten gurasoek kontzientzia edo behar handiagoa daukate normalean. Edo bestela, denbora luzez elbarritasuna gainean daramatenek. Nik, esaterako, 36 urte daramatzat horrela. Gauzak dexente aldatu dira garai batetik hona, lehen zailago zeuden, noski. Hala ere, elbarritasuna ezkutatzeko joera handia dago oraindik ere. Jende askok oso ausarta naizela esaten dit, baina daukazuna onartzean datza gakoa. Egunerok o bizitza unibertsitatea da.

***Zeintzuk dira EILUZen egiteko nagusiak?***

Egiteko garrantzitsuenak bi dira: elbarritasuna daukatenei eta euren familiei informazioa ematea, batetik, eta administrazioari legea betearaztea, bestetik. Normalizazioa lortzeko bidean urratsak ematea, funtsean. Talde bezala ekintza ezberdinak egiten ditugu urtean zehar; sona gehien duen ekintza, ziur aski, irailean ospatzen den kirol jardunaldi integratzailearena izango da. Horrez gain, erakusketak edo bestelako ekintzak ere antolatzen ditugu, gaztetxokoetako gazteekin eta abar. Normalizazioa



lortzeko pausoak ematea da gure xedea eta horretarako funtsezkoa da gazteekin lan egitea, azken finean eurak izango baitira etorkizuneko agintariak. Elbarritasuna normaltasunez ikusten erakutsi behar diegu.

***Elbarritasuna gainean igarotako urte hauetan guztietan aurrera-pausorik eman dela uste al duzu? Ba al duzu etorkizunean egoera hobetuko den itxaropenik?***

Duela 30 urtetik hona gauzak aldatu dira, bai, baina ez da nahikoa. Talde bezala hots gehiago atera beharko genuke agian, azken finean gure lorpenak gizarte guztiarentzat onura dakarte. Guk eskatzen dugun guztia teknikoki posible da, borondatea da falta dena. Herriari orokorrean eta batez ere agintariei inplikatzeko eskatuko nieke, baina ez gure alde, guztion alde baizik, irisgarritasun arauak beteaz lortuko genukeena, oraingoa baino gizarte hobea eta bidezkoagoa bailitzateke, zalantzarik gabe.

***EILUZek behin eta berriz salatzen duen moduan, irisgarritasunaren legeak zehazten dituen arauak ez dira beti kontuan hartzen.***

Urratsak eman dira, hori ez dugu ukatuko, baina egiteko asko dago oraindik. Agintariek gauzak agindu bai baina ez betetzeko joera kezkagarria daukate eta hori tamalgarria da. Borondatea bai, baina haizeak eramaten dituen hitz hutsetara mugatzen da euren borondate hori askotan. Oraindik ere, hainbat eta hainbat obra publiko berritan, kontuan hartu beharko liratekeen gauza asko ez dira kontuan hartzen eta hori lotsagarria ez ezik salagarria ere bada, arau haustea delako azken finean. Talde politikoen legea betetzen den modu berean bete beharko litzateke irisgarritasun legea, eta ez da betetzen. Harrigarria da, baina hala da. Hori da gure taldearen gudu-zelai nagusia.





***Obra zahar askotan, egokitzapenak egin dira elbarritasuna dutenen beharrei begira.***

Bai, ate bereziak jarriz eta abar. Horrek, ordea, tratu diskriminatorioa ekar lezake zenbaitetan, leku publiko askotara bigarren ate batetik, atzeko atetik, sartu beharra dakarrelako berekin. Ate nagusia bat eta bakarra izan behar da, guztiontzat berdina. Lehen esan dudan bezala, gainera, horrelakoak eraikin zaharretan ez ezik berrietan ere gertatzen dira, eta hori izugarria da.

***Argi dago, beraz, mundu hau ez dagoela, orokorrean, elbarritasuna dutenei begira antolaturik...***

Edozein unetan egiten dugu guk traba edo oztoporen batekin topo: gaizki aparkatutako kotxe batek, esaterako, gure ibilbidea baldintzatu dezake erabat. Taxiak ez daude guretzat egokituak, eta trenak, zer esanik ez. Oinezko zenbaitek ere nahiko lan izaten badu trenetik igo eta jaisteko, gurpildun aulkian goazenok... Lana aurkitzeko ere, arazoak (INEM-eko bulegoa bera ere ez da irisgarria...). Ez da erraza. Askotan mesedeak eskatu behar dira eta horrek amorrua ematen du, autoaskiak izatea nahiko genuke baina tamalez ez da beti posible.

***Gizarteak zuen arazoen aurrean paso egiten duela iruditzen al zaizu? Zenbateraino dauka gizarteak zuen arazoen inguruko benetako kontzientzia?***

Gizarteari ezin zaio egiten duena baino askoz gehiago egin dezan eskatu, ezta nahi ez badu gure borroka honetan inplikatzeko ere. Jendeak bestelako mila arazo dauzka gureetan pentsatzen hasteko, eta gainera ez dugu jendearen errukirik nahi.



## MAITEREN AMETSAK

Niretzat ametsak dira dantza egin ahal izatea eta mendira joatea. Mendira joatea, batez ere. Garai batean, mendira igotzea kasik derrigorrezkoa zen niretzat, ia igandero joaten ginen Aizkorrira edo ingurura, San Adrianeko koban barrena igaro... Inguru hori guztia asko maite dut. Oraindik ere, norbaiti Aizkorrira doala edo bertan izan dela entzuten diodanean, halako bihotz kolpe bat ematen dit. Helikopteroz balitz ere, gustura igoko nintzateke Aizkorrira, bertan, sagardo tragoa lagun mokadua egin eta ikuspegiaz gozatzera. Gaur egun, Beundera (Otzaurtetik gora dagoen atseden gunea, San Adrianetik gertu) joatea bera ere zirraragarria da niretzat, nahiz eta porlanak erabat itsusitu duen inguru hori ere.

Erantzunkizuna duten kargu publikoei, ordea, horiei bai, eskatu egin behar zaie eta gure eskubideak bete daitezen exijitu, euren lana hori delako azken finean. Lotsarik gabe eskatu behar zaie, gainera.

***Gizartean zuekiko erruki edo pena sentipena hedatua dagoela iruditzen al zaizu?***

Zalantzarik gabe. Gizartean oso hedaturik dago erruki sentipena, eta hori ez dugu nahi, sentipen hori kaltegarria baita. Tratu normalerako bideak ireki behar ditugu. Hortik dator gazteekin lan egitearena. Umeek natural-natural galdetzen dizute, esaterako, "nola aldatzen dituzu arropak?" eta gurasoek errieta egiten diote ondotik, "ixo, ume, hori ez da galdetu behar", esanaz. Umeen jakinmina eta era honetako galderak ez dira moztu behar, noizbait naturaltasun egoerara helduko bagara. Zaharrek daukagu kulpa, umeak gehiegi babesteko joera horrek itsutzen gaitu agian.

***Geltokietako jaietako batzordean ere jo eta su zabiltza lanean...***

Geltokietako jaietako batzordea irekia da, baina dozena bat lagun inguru gabiltza bertan lanean. Nik lau urte inguru daramat. Jende gaztea hasi zen lanean, nire semea tartean, eta honek aholku eta laguntza eske nigana jo zuen. Poliki-poliki taldean sartzen joan nintzen eta gaur egun taldeko lokarri moduan ikusten dut neure burua. Gazteek maiz egiten dizkidate "Maite, noiz hasiko gara jaiak antolatzen?" eta horrelako galderak, agian elbarritasuna izateak ere badu eraginik nigana gerturatze horretan.

***Batzordeko gazteen artean ez zaizu, beraz, estimurik falta.***

Gazteek jarrera ona daukate ororean. Bestalde, antolakuntza batzordean lan egitea tarteka gogor xamarra ere baden arren, giro polita sortzen da lan hori egitearen aitzakian, festak barrutik bizitzeak beste ikuspegi bat izaten laguntzen die gazteei eta hori aberasgarria da. Horrelako batzorde batean lan egin ez duen norbaitentzat zaila da imajinatzea, baina hala da. Kalean ez dagoen beste giro bat sortzen da taldearen barruan, elkarrenganako beste harreman bat.

***Asto karrera da jaietako izarra, orain gutxi desagertzeko arriskuan izan bazen ere.***

Asto karrera kentzekotan izan ginen, astoak bai baina asto gainera igoko zen jende gutxi zegoelako. Era batera edo bestera, jai hauetako ikurra, nolabait esatearren, astoaren inguruko ekitaldia denez, mantentzeko ahalegina egin da. Aurten, esaterako, tabernariek euren gain hartu dute antolakuntza. Hala ere, denborak esango du asto lasterketa egiten jarraitzeak merezi duen ala ez, ikurra delako edo omen delako bakarrik mantentzeak ez dauka zentzurik parte hartzeko interesik ez badago.

***Geltokietako jaiak antolatzez gain, beste egitekorik ba al du batzordeak?***

Aurtengo asmoa, Santa Lutzi egunean feriako zati bat geltoki ingurura ekarraraztea da. Azken finean, tren geltokia dela eta jende dexente ibiltzen da auzoan eta modu honetan bi herriotako erdiguneetako txoko jendez leporaino beteei arnas pixka bat emango litzaieke, auzoari bizia ematearekin batera.

***Elkarrizketa amaitze aldera, Maite Berasategi nor den definitzea eskatuko genizuke.***

Irakurtzea, musika entzutea eta lagunekin egotea gustuko duen pertsona naiz. Baita auzolanean aritzea ere. Auzolanean aritzea aberasgarria da oso. Itsasoa gustuko dudan arren, mendia asko maite dut: mendia bistan izanda gustura egoten naiz ni. Uneotan, nire oinarrizko beharrak aseta dauzkat zorionez eta nire lana eta egitekoa beste batzuk guk pasa behar izan duguna pasa behar ez dezaten saiatzea da. Azken finean, elbarritasuna eduki ala ez, bizitza honetan norberak nahi duen oro lortzea posible da, saiatuz gero edozer lor daiteke.>

***Gorka Azkarate***

## MAITE BERASATEGI

Maite Berasategi es natural de Zegama pero lleva casi treinta años viviendo entre nosotros. Sufrió un grave accidente cuando tenía 15 años, después del cual comenzó a luchar de manera incansable en pro de los derechos de las personas con discapacidad. Es miembro de la asociación EILUZ, cuya labor está encaminada tanto a informar y apoyar a las personas del colectivo y a sus familias como a exigir a las administraciones públicas que cumplan la normativa vigente en cuanto a temas de accesibilidad. Aunque reconoce que la situación, poco a poco, va mejorando, subraya que aún queda mucho trabajo por hacer y que la actitud de los mandatarios no siempre es todo lo sensible que ella y los demás miembros de EILUZ quisieran respecto a la problemática que día a día han de sufrir. En los últimos años, Maite también colabora activamente en la comisión organizadora de las fiestas del barrio de las estaciones.

# MATTIN OSINALDE

## ganador del concurso de ideas para la nueva imagen de Urretxu

**El logotipo premiado destaca el avellano y su hoja como elementos característicos de Urretxu para reflejar que Santa Barbara acoge al pueblo desde arriba, con la hoja de avellano dando sombra. Para el jurado no ha sido nada sencillo decidirse debido a la cantidad y la calidad de los diseños presentados. En la categoría de escolares, cabe destacar la frescura y el colorido de las propuestas.**




El Ayuntamiento de Urretxu presentó, a mediados de mayo, un concurso de ideas para la nueva imagen del municipio, con el fin de seleccionar un logotipo que pudiera ser utilizado en publicidad, comunicación, publicaciones, proyectos, y también en edificios públicos, vehículos municipales, vestuario de los funcionarios o merchandising.

